

"Naturarekin dantzan" eta "Mendia eta jolasa uztartuz" izan dira argazki lehiaketako aukeratuak

2015/04/14

MUko Kirol Zerbitzuak antolatu duen XIV. argazki lehiaketa Paola Billanteren "15.1." "Naturarekin dantzan" argazkiak eta Eider Quintasen 21. bildumak "mendia eta jolasa uztartuz" irabazi dute. Aurtengo edizioan 26 partaide eta 73 argazki aurkeztu dira lehiaketara. Guztiak kalitate bikainekoak.

ARGAZKI GUZTIAK IKUSGAI

Argazki onena "naturarekin dantzan"


Aurten argazki bidez adierazi behar zen gaia "Emakumea eta jarduera fisikoa" izan da. Argazkiaren kalitate aparta eta une egokian ateratako argazkia dela argudiatuta eman zaio argazki onenaren saria Paola Billanteren 15.1. "naturarekin dantzan" argazkiari. Epaimahaiaren iritziz, argazki honek gaia adierazteko "pertsonek eta naturaren arteko uztarketa polita lortzen du". Kasu honetan emakumea, itsaso azpiko fauna eta flora urpekaritzaren bitartez elkartuta. Argazkiaren konposizioari dagokionean, "kolore eta tonalitate egokiak" erabili dira eta honek argazki "alaia eta freskoa" lortzea ahalbidetu du. Amaitzeko, gaia adierazteko izenburu originala erabili du eta hitzez azaldu nahi izan duena (naturarekin dantzan) irudiz ere adieraztea lortu du.

Bilduma onenaren saria "mendia eta jolasa uztartuz" bildumak eraman du

Bigarren saria Eider Quintasen "mendia eta jolasa uztartuz" 21. bildumak irabazi du. Kasu honetan, jarduera fisikoa jolasarekin uztartzea ideia polita iruditu zaio epaimahaiari. Bilduma honek lehiaketa kirola baino gehiago aisialdiko jarduera fisikoa azpimarratu nahi izan du. Talde giroan, lagunartean zentratu du gaia eta bildumako argazkiek jarduera fisikoa egiteak sortzen duen alaitasuna eta positibotasuna transmititzen du. Hau da, bildumak jarduera fisikoa modu alaiean praktikatzera gonbidatzen duela. Argazkien teknikari erreparatuta, espazio eta konposaketa egokiak erabili dira guztietan eta bilduma bezala koherentzia duela ebatzi du epaiak.

Amaitzeko, antolakuntzak eskerrak eman nahi dizkie partaide izan zireten guztioi zuen lanak guztiokin partekatzearen. Mila esker partaide guztioi zuen lan eder hauengatik eta hurrengo ediziorarte!

Argazki lehiaketako webgunea



2014/2015 ikasturteko bilduma irabazlea
Izenburua: Mendia eta jolasa uztartuz
Egilea: Eider Quintas